

nean. Gaurko, ordea, gelatxuri tekladuna eskaintzalea da, eta jendeen erdiak nonbait, orain, kanpotik etorritako erdal-dunak dira, hiriak ez baitu hor agintzen, Bordelek eta Parisek baizik.

Bi andereek esandakoen arauera, zaharrak hain gaizki, hain gaixo direlako ez dirudi etxe-sendagailuek zerbait deza-ketenik, baina badakite "Jainko txiki" ta "ezur-zuzentzaileen" gana eramaten dituztela zahar elbarrituak, andereek ez dutelarik inolako kritikarik egiten, Sendagailuekin kontu egin behar dute "zahar eri laguntzaleek" ezen ez baitute jarramon egiteko kemenik, ahazkortzen baitira, eta erremedioak nahi-siz, nola nahi hartzen.

## ONDORIOZ

Argi dago, oroz gain Maddalen Karrikaburu-ren kasuan, zenbateraino eskolako erakasketek beren benetako eraginak izan dituzten eta nola XX. mendean, higie, patologia eta osasunean egin diren aurrerapenak etxeetan eta sendaketa ohituretan sartu diren; bildur izateko da jakituri on ta berri horiek ez ote diren ahaztuko, ezen fakultateko gure ikasleen artean egin sundaketak erakutsi dit, orain hirurogei urteetako jendeek dakitena medikuntzan, osasunean gazteetan gutxi dakitela, sendagileak hor daudela hortarako gogoan.

Naski erdal aldizkarietan, eta andereentzat espresuki egindakoetan sendakuntza aholku asko dago, beharbada ere gehiegi, oinarrikoak, bazterretakoekin nahasten baitira eta etxean egin litekena, erizainek bakarrik egin behar deza-ketenekin batean emanaz.

Nire inkesta hortan, nire inguruko euskaldunak ikusiz, ez dut inon ikusi oraindik baserrietan Frantzian batzutan edukitzen den **Larrousse médical**, liburu lodia ezen jendeek ez badute gehiago euskaraz irakurtzen azken berrogei urte hauetan Zuberoan, frantsesa ere ez dute egiten. Beraz jakituri berririk etxeetan sartzan bada - esan nahi dut herri-xehean, populuan - ospitaletik izango da gehien bat eta etxen norbaitek gaitz bereizia izan duelako eta arta zehatzak eduki. Halaxe, eta hori neskatilarekin ageri zen guraso zahar eta gazteek eduki "eritasunak" zituen hobekienik ezagutzen.

Berritasun bat baldin bada etxe-sendaketa hortan izango da, gaitzaz, eritasunaz bezainbeste osasunaz arduratzen dela, eta harriduraz konturatu naiz, nire beharrez bizpalaur mediku kontsultatu baititut Zuberoan ez direla gehiegi edo batere higie ta osasunaz arduratzen, ez kezkatzen ere hobeki jaten, edaten, bizitzen erakasten denez ala ez; areta segurantzak asko irabaz lezake, aurrean horrekin: denek diote telebista dagoela hortarako eta aldizkariak, baina ez dute jende bakoitzari bizi aholkurik ematen, edo bestelan tankera hortako haukerak ematen dira zintzuruko minbizi abioa daukanari

"tabaka ala alkola, bata edo bestea ützi behar düzü, bestelan lürpelako zira, dolore handitan".

Galdekatu ditudan guztiek esan didate nola gaurko bizi erosotasunak eta diruak jendea gehiegikeria guztietarat bultzatzen dituen: gehiegi jan, gehiegi edan, gehiegi erre; askok diote hortik datozela zahartze tristeak, burutik nahasteak, paralsiak, atsotzeak, eta minbizi batzu ere; beraz, agian, sendagileek arrazoin dute, jendeek auzoen eta beren etxe-koen gaitzak ikusiz ikas dezakete. Zoritxarrez gazteek,

gehiegikeriei ematen diegun mugak, oztopo, askatasun debekuak direlakoan, alderantzizkoa egiten dute: hori norma bada adin batean, gaitz bat bihurtzen da ohitura bilakatzen denean eta hori esan genezake Zuberoako gazteen alkoholismu harrigarria ikusiz.

Berriemaile guztiek esan didate, oraingo erremedio hobereenak ere, gehiegi hartuz pozoin bilaka litezkela eta horrek ematen du gogozkatzera, jendeek erositako sendagailu guztiak ez dituztela, osoki hartzen.

Etkez kanpoko sendakuntza horren konfidantza gabetasun hortan ere sar genezake, herabea, uzurtasuna sendagileen ikustera joaiteko, baina joan ezkeroko gutxitan ematen da ebakuntza bati edo ospitaleko arta bati ezezkoa. Gure familiar, ordea, eta ez bakarrik gure zuberotar aitarenean, gaitza ixilik, eta ez ongia aipatu gabe egoitea gertatzen da, garai hortako jendeentzat ideia baita

"badakik Ospitalean noiz sartzan haizen, baina ezdakik noiz eta sekulan ere irtengo haizen".

Halere berrogei urteez goitiko baserriarren artean bereiziki eta lanpide txikikoen artean ere, joera berria dago; ez dira, gaitz txikientzat, etxeko sendakuntzaz askiesten, baina maiz sendagilearen gana dabilta edonoiz, egun batean pentsio eskatzeko eta lortzeko esperantzan (Santa Grazin, Xenta hauzotegian, gure etxeaz kanpo, etxe guztietan pentsioduna badago bihotzeko mina, tentsioa, alkola dela ta, beraz Atarratzeko medikuek sekulan bezain lanean dabilzan gizon andereak ikusten dituzte, beren pentsioek ematen dieten, aldikako bisita dohañen aprobetxatzeko; lotsagabeki mintzo dira gizarte parasitismo hortaz).

Gero argi dago, jai bat denean aspirina bat har eta ez direla gure herritarrek medikuaren gana joaiten, baina belarrak egiteko garaian, eta uso ehizearen garaian denak gaitzotzen dira, eta etxeko erremedioak ez aski.

Belarren erabilera etxe-sendakuntzan esan dezakegu, duela berrogei urte erortzen hasia dela eta jendeek ez dutela, askotan, ulertzen zergatik landare bitxi batzu sortzen diren baratze ingurunetan. Gure Santa Graziko baratzearen inguru bat egiten dudanean ezkiña batean **Gaukar loreak (Viburnum opulis L.)** ikusten ditut iñör guttik daki, andereen odol gaitzentat eta odolpausuentzat ona dela, gero beste ezkiña batean elkarren ondoan, **Nasailora Filipendula ulmaria L.** erreumientzat on dena, ta **Ariketa (Eupatorium cannabinum L.)** gibelaren sendagailu dena; noski, **ezkaia ta erreñotza** dira, saltsa hobegailu izatetik kanpo sendagailu direnak, este eta urdail aringarri. Gaur, **ezkia ta menta** gelditzen da jendeen erabilera nagusian: askotan farmazian erosten dituzte.

Nahiz ezagunak diren bentosak (godaletak) aiutak, labamenduak, enplastuak, kataplastak ez dira gehiago erabiltzen ez eta aspaldian sangratzeak; beraz erabili fisiko gehienak galtzen ari dira, eta indizioak eta pilulek lekua hartzen. Atzo, oraino lehengusu batek esaten zidan 1920. urtean ikusten zela linoazia ereiten etxeetan ez oihalaren egiteko, kataplasma eta enplastuen konpontzeko baizik.

Galdu direnak ere unkenutak, pomadak, eta olioak izan dira; ardoarekin egindako azkargarriak bai ezagunak dira, eta gehienak sangria modukoak dira, hotzik, gero katarruetan ardo eta ron berotu edo erreak.

### Izua sartzen duten gaitzen artean.

Adineko jendeek, beren gurasoei entzunik, "miserere kolia", gripe mota batzu, gangrena edo pasmoa; gero berek bizitutakoa tuberkulosia (probenistea) eta bakterio-gaitzak (zaboraldi edo tetanosa, difteria, eta tifoide edo sukarustela). Hogeitasei urteetako neskatilarentzat iadanik kondairazko gaitzak, aintziñakoak dira, berak aldiz, ondo ezagutzen dituenak, alkoleria, erreumiak, tentsioa, bihotzeko minak dira eta bildurgarriena minbizia (kantzera). Hamar berriemaitetik, bederatzi euskaraz **minbizia** diote, batek, ordea, Lakarrikoak **mingaixtoa**, kantzeraz mintzo direnean.

Gaitzek izadiz kanpoko, bakteriez eta indar fisikoez kanpo, jatorri izkutu bat "gehiegi desiratzea", "begizkoa" izan dezaketela, zaharrenek eta gazteenak sineste zerbait badute, bitartekoek - eta hau agian III. errepublikako eskola arrazionalistaren ondorioz - berealaxe sineskeria susmoa jartzen diote, batzutan psikoterapiari ere. Gazteetan "jakintzakeria" edo zientismo hori gaitzen ari da: hori behar bada, ezkerreko eta eskuineko ideologia egiadunen hutsegitetik letorke; gero zerbait ikasketa egin dutenen artean parapsikologiaren ganako jakin nahia. Psikoterapiaren eragina sendaketetan, gazteen artean hobeki senditzen da (ikus Elian, Leonie ta Yvette-ren lekukotasunak).

Beharbada jende gehiagoren erantzunak bildu behar nitukean karta bidez, hori hobeki ziurtatzeko, baina Zuberoan behintzat, denek diote eguzkia oso kaltegarri izan daitekela: baina udan aski da Zuberoaren gaindi kurrutzea ikusteko, eguzkiari leiho-zurrak hitxi egiten dituztela - ipar frantsesen harriduraz - eta gauaz bakarrik kristalak ere irekitzen, Udan.

Zaharrenek oroitu dute, gogoratzen dira, guttitan zela sendagilea deitzen, diru gabez, eta ebakuntza garesti, dentista lana handikeria bat; orduan, auzoa deitu egiten zen, belarrak ezagutzen zituen anderea, kasu arruntetan emagin-lana egin zezakeana, eta herri bakoitzean bazen, baserritar bat (ni bizi naizen etxean Ibar zena) edo ofiziale bat, besteak baino trebeagoa, ausartagoa helduei haginak kentzeko, ez hume koskorrei gurasoek, etxeokoei egiten baitzieten lehen-haginen idokitzea.

Gauzak noiz aldatu diren, eta etxe-sendakuntza, auzo-sendakuntza hori desagertu? Iparraldean eta Zuberoan, behintzat, pixkanaka 1945-1950. urteetan ia galdurik daudelarik etxe-dentistak, etxe-belargileak, eta auzo-emaginak.

Belar erabiltzaleen kontuan, Zuberoako botanika Althabegoiti-k joan den mendean argitaratua, Mauleko aste-kari erdaldun batek "Le Miroir de la Soule" delakoak eman zuen, eta badakit jendeek guraizekin moztuta gorde dituztela 10-15 zatitan artikulua. Horrez kanpo larunbata eta igande goizetan, Etxart eta Tauzin andereek Ziberoako botza deritzaion Irratian tisana errezetak euskaraz ematen dituzte, batzutan. Gehienetan, ordea, kulturagabetutako eta frantsesutako jenderen artean telebistaren eraginez, Mèsségué, frantses belarzalaren liburua erosi dute Zuberoan baita ere zoritxarrez Riika Zarai kantariak eginarazi errezeta pilaketa arrixkugarria, belarrak ez baitira nahi erabili behar.

Ez dakigu zenbateraino sendakuntza akademikoaren fakultateko sendaketak eta osasun aholkuak, herri jakintzan sartu diren: zeren **Eskualduna** Baionako astekarian Zuberoan ere gerla aurrean irakurtzen zen hartan, Etxepare medi-

kuak artikulua pilla idatzi zuen; naski euskara "dotorea" zera-bilan, eta zuberotarrentzat, agian "tiranegi, trinkoegi", baina Fermin Irigaray Larreko eta Etxepare medikuaz kanpo ez da euskaraz gehiegi idatzi osasunaz eta gaitzaz, jendei aholku emateko ta higiena erakusteko. **Herria**-n garai batean, noizpeinka, "Erizain" izenpetzen zuen batek artikulua motz baina trinko ta jakingarriak ematen zituen. Gaur, ordea, espezialisten garaian zer leku izango dute gure jakituri motzek eta gure belar ahulek?. Gure berriemaitetik sendagileak behintzat uste du, kimiazko droga askok baino kalte guttiago egiten zutela - noski, jendeek erabiltzen zekitelarik - eta beren segetuak ez ditugula oraindik argitu.

Jendeek berek prestatzen zituzten sendagailu gehienak baratzeokoei edo baserriko gauzei eginak ziren eta europar kultura guztian aurki ditezke: ardo, ezti, gantz, olio, argizai, arraultze gorringo, gatz, ezka perexil, erreñotz, ezki, menta eta abar. "Aintziñako sendakuntza" ihardutean erakutsi dugu nola gure ospitaleak eta herriak bildu dituen sendabide batzu Santiago bideari zor genizkion, europar eragin horien argitzeko.

### Sinbolikak, erritoak sendabideetan.

Ez da harrizkoa, jendeak bere gorputzari hain atxikiak garelarik zernahi sineste zahar eta berri aurkitzea hor. Zahar, pagano barranokoak direnak, berri kristiar girokoak.

#### a. Pagan sinbolo eta errito

##### Inguruak

Txingola (usagre) larru gaitzaren kasuan zaigu hobekienik gorde, euskaldunek jirabira edo inguruak egiteko daukaten ohitura, alegia eskubitik ezkerre, erloiuaren orratzen alde-antiz. Bai, Intxauspe Undürainekoak gaixoei nola mahainaren ingurua eginarazten zieten, berritan keinuz erakutsi zigun, erloiu-orratzen alderantziz zela. Berdin Allande Elixagarai ligiarrak kontatu zigunean gaitz berdina bere amonak nola sendatzen zuen argizaia azal-minaren gainetik ingurua pasatzen zuen, baita beti eskubitik-ekzerre. Beraz hor, geuk beste hainbeste hartu dugularik berezitasuna bagenuke.

Eskubitik ezkerre inguruaren egitea, euskaldunen eta gaskoinen dantza jauzietan ikusten dugu: hots, dantzariak beti delako orratzen alderantziz ibiltzen direla, gainera beti ezkererako oina aurrean ipiñiz.

Bi errito horiek, indoeuropar ohituraren aurkakoak dira ezen, esate baterako, Frantziako Normandian sendatzeko orratzaren alde berdinetik egiten da ingurua; ustegabeen alderantziz egin baledi, jendea sendatzeko orde sorgin bilaka ditek; gauza berdina entzun genuen Indietan (Bharat errepublikan), ez zela behar tenplu baten ingurua egin, orratzen alderantziz eta gogoratzen naiz Khadjuraho-n nik halaxe egin nuela, andreak eta euskalduntsa adiskide batek oharra eginik, nik erantzun euskaldun modura egiten nuela.

**Zenbakietan** ez da holako berezitasunik Zuberoako herri-sendakuntza, Europa guztian bezala ingurua edo keinu, 3, 7, 9 bider egiten baita eta minaren kentzeko zenbaki hortatik atzera kontatzen delako. Zenbakien sinbolika hori, Asian ere ematen da ta beharbada gizonak zenbakiak ugari-tu dituen gauza sakaratu bezala harturik, hiru, zazpi ta

bederatzi, esan nahi izkutu batez zamatatu. Hinduismo ta Taoismoan zazpi edo bederatzi dira, betegintzarako mailen kopurua.

**Garbigailu eta garbigintzen** artean, osasunaren gordetzeko edota sendotzeko, Eurasia guztian bezala, ura eta sua topatzen ditugu, pagan ohituraz gordeak batzutan hala nola Donibane goizeko aurpegi eta esku garbiketarako osasunaren gordetzeko Ligin denek egiten zituztenak eta Santa Grazin neskatilek; gero Zuberoa gehienez gutti edo aski duela berrogei urte ohitura bizirik zegoen, geronek praktikatu dugu; baina baziren agian potere gehiago zeukaten Donibane iturriak, hala nola Maule alboan, Lextarreko Jondane Johane iturria, eta Zihigan izen berdinekoa.

Ura ere zikingarri kutsugarri izan ditekete, ezen norbait hiltzen zenean mende hasieran Santa Graziko etxeetan pegarretan, ontzietan zegoen ura bota egin behar zen norbaitek azken arnasa emanda.

Suaren kasua, ez da berdin baina Ekainako eguzkiaren jaiean Donibanen, gazteek suaren gainetik jauzi egiten zuten eta egiten dute; aintziña ez zen joku edo kirol hutsa "Sorgin zaharrak erre" edo "Belhagile zaharrak erre" oihu egiten zelako.

### Hitzen indarra.

Gizonak hitza duelarik, berezitasun nagusizat animistei iduri zaiete, hitzak Izadiari lagundu dezaiekela, horregatik, esate baterako Zabalaineko etxeko jaunak etenduraen azti-sendaketa kontatzean

1. Bi gizon izen berdineko behar dira gaixoaren altxatzeko.
2. Bi gizonek **hitzegiten dute**, "To Joanes Har'zak Joanes" zazpi edo bederatzi bider.

Berdin txingola sendotzaileak gaitzari agintzen dio, lotu ta deslotu egiten du, lurrera botatzen, ta han egon dadin **esaten**.

Beste modu batean eta Europa guztian ikusi denez hitz-jokua Saindu sendatzaile iturria da Santa Klara begientzat Frantzian, baina Zuberoan susmoa badugu, ez ote den berdin gertatu San Gregori gorren saindua izateko, ezen sainduaren izenean - gor - silaba baita. Hitz joku itsusiagoak ematen dira frantsesez.

Gaitza hitzekin bazter ditekete gisa, ekar ditekete, ustegabeen, zerbaiten edertasuna gorapatuz gaixo eta hil ditekete (hori gehienbat abereekin gertatzen da), gehiegi desiratzea ere holako da, gero madarikapen eta begizkoak hitzez egin ditekete.

**Animismua Zuberoan**, luzaro aipatu genuen eihar-meza (igar meza), norbait gaixoarazteko, hilarazteko meza (xedegabekoa) emaneraztea, eta meza garaian madarikapenak egitea eta argizai oso bat errearaztea: hor azti-beltzkeriaren mugan gaude.

### Kristiar erritoak.

Bat dago paganoen gandik ziur hartua, eta kristautua, **argizaiarena**; ezen gizaldiz gizaldi, erlearen ezkoa sakratua bezala ikusia izan da eta erabilia Europa ta Asiako sineste eta sendakuntza gehienetan holako zedozer aurki liteke; gurean kristautua da "ezko benedikatu" baita. Argizaia, norbait gai-

xorik edo hiltzorian dagoenean piztea Euskal Herri guztian ematen da (Frantzian, Pazko kandelak du potere hori, edo Pazko kandelako intsensu aleak).

Gure bilketan argizaia, txingolaren sendatzeko erabiltzen da, kristau ez den azti-otoitz batekin, eta berriemaileak uste du, argizaiaren berotasunak azalean eragin zerbait daukala. Gero ezkoa benedikatu ala ez unkontuen edo pomaden adelaketan sartu ohi zen, eztiarekin batean, erle sakratuaren bi ekoizpenak gaixoen onetan halaxe bildurik, halan baturik.

**Ur benedikatuarena**, aintziña herriko elizan benedikatu ura nahikoa zen eta edan zitekean edo gaixoaren bekokian ipiñi, sendatzen laguntzeko; gaur, ordea, eta komertzioa hortan nagusiturik, Lurdesko urak baizik ez luke holako potereirik eta etxeetan mihiseen (izara, maingireen) artean eduki ohi da, bakterizida moduan. Lurdes-era doanak hauzoei ekarri ohi diete, plastikozko birjina baten barruan, garai batean ere txisontzi portzelanazkoan ere. Paganoek ur horiek ezagutzen zituztela, gogoratu behar da.

Ez luzatzearen ez ditugu lekukotasunak osoki eman A.E.B. Jose Miel Barandiaran bilduman, **Animismua Zuberoan** liburuan, Donostia 1985, xehetasun guztiekin agertzen dira sineste-errito horiek.

**Animismua Zuberoan** lekukotasunez eta zehatzki agertzen da nola, **gurutzearen señailea** erabili ditekete ez bakarrik jendeak, baina abereak, bai eta landareak gaitzen eta eriotzaren axolbean, jartzeko. Gurutzearen señaile hori, urarekin egin ditekete, eskuarekin, edo gurutzearen itxura eginaz.

1. Etxe ataritan, gaitz eta irrixku guztien aurka Donibanez egiten da elorri txuri, lizar, erreñotz, floka bat, eta batzuek gurutzearen itxura ematen diote. Aurten ikusia dut Santa Grazin.
2. Abereak goi mendietara joan baino lehen ardi eta ahuntzak urbenedikatu, benedikatu dira (behiak ez) eta hori Santa Grazin gorde da (Biarno hauzoan iturri urez, buruan busti egiten dira, besterik gabe) (lib. aip. 68.orr.).
3. Azkenik landareen babesle izan ditekete gurutzea, ez bakarrik Donibane egunaz, holako gurutzeak belardi, soro eta larre ezkinetan, hesietan landatzen direlako, baina artoa ereiten denean arto sailaren erditan, hildak gurutzatuz egiten da, gurutze bat alorraren erditan ager dadin (lib. aip. 67.orr.).
4. Ardi bat hiltzen denean eta odola biltzen gaitzean gurutzearen señailea marrazten dio ona izan dadin, Santa Grazin (1985.an) (67.orr.).

Europa gehienez holako kristau keinuak badira naski janarien gainean, janaria hasi egiten delarik (ogia, gazta) gurutzearen señailea egiten baita, baina pagan-ohituraz herri batzuetan ere eguzkian ipintzen, izar horrek indar hobe eman dezaion J. M. Satrustegi-k ikusi zuen hori Luzaide-n egiten.

Ahaztutzero nindoan, txingolaren sendaketa hirugarren sendabidea dela, baratze bateko xendetan ibilaldi bat eginaraztea, eskutik harturik gaixoa, edo bizkarrean kargatuta, gero ibilaldi hori **gurutzearen itxuran** egiten delarik.

Badakigu Kristo baino lehen gurutzea erabili dela eta sinbolika aberatsa daukala ta zeukala aspaldidanik Egipton

biziaren eta ezhilkortasunaren seiñalea zen, baina maila xumeagoan gaude herri-sendakuntzan eta uste dugu euskaldun zahar paganoen gurutze erabileraren esangura osoki galdu dugula; gaitzaren eta deabruaren aurkako kristau arma bilakatu da gurutzea, eta hola ulertzen dute euskaldunek, nahiz beti keinu baten egiteak errito baten praktikatzek edozein sendakuntzari psikoterapiarako giro egokia sortzen dion.

Arrazoinzale batek lioke eta euskaldun bati entzun diot esaten "piko baten ontsa egiteko, kūrūtze egin behar dik bestelan ez dük xūxen joaiten", beraz larru edo azal ebakuntza baten egiteko ere gurutzea eraginkorrena da, zuzenean. Jendeen gogoan, ordea, kristau seiñalea da eta hain zuzen andereek dagite gehienetan gurutzea eta benedikape-na Zuberoan, etxeko "serorak" baitira, beraz keinu horrek bere "adur" balorea ez du galdu.

Izuaren kentzeko, beldurraren urruntzeko, ala deabruaren baztertzeko zerbait harrigarri entzuten zutenean, zaharrek gurutzearen seiñalea egiten zuten Zuberoan eta gaineratzen "Jesü Maria ta Jüsef".

### Otoitzak eta osasuna. Ebanjelio ta debozioak.

Bilketa hau egin baino lehen Allande Artigau "Elixagarai" berriemalle oparoa ta gure lehengusuak Santa Grazin, "pagano bataiu" batean eta ardotxuria edanaz, esaten ziren eta diren erdi giristino otoitzak eman zizkidan.

1.ena. Nahikoa erreza da ulertzen, etxe inguruan haurrak langa (kihilla) batekin ixtripurekin izan ez dezan

"Gaiñeko Elgeko kihilla handiak  
aztala hatzaman ez liz(ai) on  
Pater, Abe Maria ta Loria.

2.ena ere, ulergarri da eta denbora berean ama gaztei ematen zaieten aholku ona, ninien eguzki minbertasunaz

"Odei arteko ekiak (eguzkiak)  
minik e'leikon  
Pater, Abe Maria ta Loria.

3.ena ez da hain ulerterreza. Egur berdearen sapa aipatzen baitu eta ez baitakusagu zer kalte egin zeza-kean niniri.

"Egür berdearen hurak  
erra e'hezan"  
Pater Abe Maria ta Loria.

Egia da egurberdea suan ipintzen denean zühatsa (sapa) beroa, irakia erregarria botatzen duela, baina sapa haina arrixkutsua da sua bera. Hiru otoitzak, lehenbizikoz argitaratu nituen A.E.B. Barandiaran Joxemiel, bilduman, **Allande Elixagarai ligiarraren ixtoriak**, Donostia, 1985.

"Sasi-sendagileez" egin liburukian, egin zatian, Pater-a petrikilloek, larru sendagileek behintzat erabiltzen dutela ikusi dugu, gero ararteko nagusi den ezkerro Andere Dena Maria-ri ere bai zuzentzen zaio.

Badirudi, Allande Elixagaraiak eman parodia batean hola-ko formula zahar baten hondakina dagoen otoitzari "Neskatilen otoitza" esaten zaio eta dio

Santa Maria Mater Dei  
kalamü bagünü mantargei  
bagünüke senargei.

Beste tankerakoa da tximistaren axolbean jartzeko - ezkoaren piztu egitetik kanpo - **Santa Barbara**-ri egiten zaion otoitza.

Nahiz oso giristinoa izan Larrebileko Zabalain zaharrari ez diot holako otoitzik bildu ahal izan, baina halere ondo hiltzeko kontatu digu nola auzoko emaginak, beretzat egin zezan, bidali zuen hiru elizetara, hiru apezei **ebanjelioak** irakurraztea. Bitxi da kasu hau, ezen Normandian sendatzeko baita halaxe egiten. Lehen ere - Gipuzkoan behintzat - ebanjelio zatiak ziren ipintzen haurrentzat "kutun" delakoetan. Gizon zahar horrek bazekien, ordea, apezek badituztela eritasun bakotxarentzat, otoitz bereziak.

**Debozioak**, sentorrale joaiteak egiten ziren aintziña Sarrantzera, eta Santa Grazira sendatzeko, baina Lurda (Lurdes) mirari leku bilakatu zenean, besteen arrakasta galarazi zuen. Zabalain-eneko etxekandere zaharrak esan digu, jende gorrentzat, San Gregori, Urdiñarbekora joaiten zirela eta Allande Elixagaraiak, pagano sinestez "Ixkillima ütürria" Santa Grazikoa aipatu.

Gaurko "jende argiai" edo berek beren burua argi uste dutenei, farrea, eta irria eragiten dieten ohitura horietaz Joan Felipe, Belako zaldun zuberotarraren iritzia on da gogozkatzeari; berak eskuidazkiz utzi zigun, bere garaian argitaratu bazen liburu ona izango zena ta 1776.an bukatu zuena, izenburu honekin *Receptes et secrets divers recueillis en faveur des Pauvres par les soins de M. le Chevalier de Bela*, Paueko "Archives Départementales" delakoetan I. J. 63(3-5) zenbakiaren pean. Eta hortan "Zakurren ausiki edo haginkadaz" hitzegiten duelarik dio jendeek beti zerbait itxaropen daukate-za zakurra ez dela amorratua, baina gehienetan, ez da erremediorik, amorruez ez baitzen sendatzen, orduan berak dio "gaixoaren oiñazeak arintzeko bildurra kenduz, edozein gauza on da"

1. Berak ez du sinesten, baina gaixoak, lepoan kurutzea, medaila, kutuna nahi badu eman, bildurra apur bat kentzeko.
2. Jendeek uste dute, adur hobea, zori gehiago izango dutela sendagailu asko hartzen badute Bela-k ez du sinesten, baina dio gaixoari oiñazeak ez titzeko, berak eskatuak eman behar zaizkiola.
3. Jenteek meza ta otoitz esanerazten dute berak ez du sinesten haietan (protestante semea da) baina gaixoari on egin dezaioke salbatu gabe.

Azkenik Joan Felipe Bela-k dio, berak zer egiten duen, amorrurik ez denean baliagarri ditekenean, ausikia garbitu, gaiñean - gaur ere farmazietan larru gaitzentzat aurkitzen den - oxido merkurikoa ipini, eta mina hersatu (bendatu); bihotzaren azkargarri bat eman.

Honela ulergarri egiten da gaixo batzuen ikuspuntua arrazionala ez bada ere, etsipenez edozein sendabide har lezaketekete, minaren eztigarri baizik ez bada, senda eziña denean. Bela-k ere kasu mingarrietan dio, opioa ta alkola erabili ditezkeela oiñazeen lokartzeko.

Oiñazearen kontu horietan psikoterapiaren indarra sendaketetan bezain handia izan ditekete, halaxe dakusagu Txinan ebakuntza egiten dutela akupunkturaren laguntzaz eta Frantzia ere saiatu hipnosia. Naski hortarako kemena behar eta heziketa berezi bat, gu sorgorrekin eta kimiazko

drogekin gabiltza, baina aintziñakoek ere bazekiten "medikuntza ez tiez" idaztean Joanes Casenave-k esan diguna, minak digitipunkturaz edo hatzekin ikultuz oinazeen ez titztea, edo beste leku batean min eginaz, oinazearen desbidetzea dirudiana: hala nola anderek haurrez erditzean, oskatzen zuten egurra.

Oiñaze, atsegin fisiologia arazoak beste leku batean aztertuko ditugulako, gogora dezagun guttienik bi norabide daudela estoikoena, Aintziñako paganoena, baita Indietan ikusten dena, oiñazeari ez minbera izaitea ere, eta bestalde judu ideologia kristautasunera igaroa, oinazea, bere buruaren zilizioz eta azotez sofriaraztea, bekatuetatik garbitzeko eta salbatua izateko dela, oiñazea. Halaxe "doloretan erdituko haiz" da emazte izorraren patua mende askotan, gaur, ordea ez, baina beste muturrera ez al gara urrutiegi joango.

Uren kontua jarraituz, beste leku batean ikusi dugu nola hiru ahizpek, Ainharbekoak, bata Biarnotik, bestea Zuberoatik, hirugarrena Ameriketatik etorriak batu egiten ziren bainuetara joaiteko, hiru urteez behintzat, segidan lehenik, Beko Garaibiko uretan egon ziren, gero goraxago Gamerekoetan, eta hirugarrenik Ahüzkin, geroago ta mendianago ez dakit hor ohitura bat, ala ustegabeko norabidea denez baina zuberotarren gogoan mendia da osasun lekua eta lekuri sakratuena, ez zelaia.

Hortaz pentsaketan nengoelarik hizkuntzaren zertxo batez gogoratu nintzen, orain ere frantsesaren alderantzira esaten ditugula ibaialdeak eta ibarrak euskaraz, ezen frantsesek iturritik itsasoari buruz jaisiz izendatzen dituzte, ezkerrekoa ta eskuinaldea, eta Zuberoan alderantziz, mendiari buruz, mendiari begira egiten da izendapena ezkerrean dagoen ezkerrekoa (ibaiertz) ibar ezkerrekoa, eta eskubitik dagoena, esküinalde (ibaiarena) nahiz ibareskuina, ibar osoarentzat. Ez dakit hor ikusi behar denez urte batetik bestera, uren, bainuen txangoan orratzaren alderantziz egin ditekena, ez baitut jakin laugarren ta bosgarren aldietan, Montorin eta Barcoixen egon zirenez.

Mendiak ordea badu, bere lillura eta urleku guztien artean Ahüzki bere mila metrotan irauten ikusten badugu ez da harritzekoa, goi-mendiaren muga, artzainen odeietan baitago "Bortüan Ahüzki" kantuak dionaz. Gero bideberri on batekin hara iristeak ez dio kalterik egiten.

Etxe-sendagintzaz azterketa hau bukatzean, hasieran planteatuak aldatu zaizkidala esan behar dut, batzuekin hutsegin baitut, eta beste jakingarriagoak aurkitu. Lanaren abiatzean, erabaki nuen herri-sendakuntzaz pratika arrunteak, bakunenak, eta "zientifikoenak" bilduko nituela eta hona nola, apotekariak, sendagileak eta berri-emalle guztiek sinboloen, errituen, otoiñen eta batzutan aztikerietan sartu nauten, beraz nere egingaia berriemalleen aberastasunari, altxorri moldatu behar izan dut, eta maiz konturatu naiz, herri sendakuntza oso suntsikorra litekela, aldakorra izan dela, benetakoa mosaiko itxura duela, hain zuzen XVII. mendean fakultate sendakuntzak ematen duen itxura daukala.

Ez dut, ziurki, Zuberoan orain erdi bizirik dagoen guztia bildu, baina bilketa horrekin eta beste askorekin konturatu naiz hirurogei urteetako jendeek daukaten jakituria, guttitan dutela besteei, berrogei urteetako seme alabei kontatzen, horiek kartesianismoaren kutsuz trufatzen baitira fakultateko sendakuntza ez den guztiaz; gazteagoak hogeia urteetakoak

gauza horien jakinminetan baldin badira ere, zaharrek ez dituzte errez kontatzen horiek ere txantxetan eta trufaz hartuko dituztelakoan, beraz zertarako bilketa hau?. Hobeki uler dezakegu zer baldintzetan zer eraginetan, zer harremanekin herri sendakuntza bereizi bat izaten den, eta apur bat nola aberasten den herri kultura bat, hartuz, itxuraldatuz, egokituz eta galduz, Europaren gaindi dabilizan jakituriak.

Hiru sendakuntzen artean, sasi-sendakuntza, fakultatekoa eta etxekoa; bazirudien artekoak besteak osoki galeraziko zituela dohainik eta poterearen itzalaz bai zetorren eta huna nola ordaindu behar bada ere sasikoa edo paralerrokoa berdin gaixoa, eriak biltzen ditu, ezen fakultate sendakuntza gaitz guztiak sendatzen ez dituzten bitartean, gaitzak etsitakoez ez dute itxaropena galdu nahi; bestalde badirudi sendakuntza ezti batzuek, herri sendakuntzaren jakituri batzu (belarrena) bireskurutzen dutela.

Etxeetan aintziña Zuberoan denek zekiten gaitz txikien erremediatzen eta apur bat oinaze ta miñen ematen edo ez titzten, gaur ordea, ez bada dena galdua, etxeetan aintzina baino ezagutza eta jakitate gutxiago dago Zuberoan, alegia espezialistei lekua utzi behar zaiela. Behin oroitzen naiz, birketako espezialista batek erantzun zidala. "Giza astakeriaren espezialista naiz, horregatik garestiago eskatzen dut"

Gehiegikeria zion, baina bere gisara uste zuen askotan sendagile arrunta nahikoa dela, eta berari kasu zailetan deitu behar zitzaioela, baina jende batzuk beren standing erakutsi nahi dute kalean, beti espezialisten gana astoki joanaz, halaber uste dut etxe-sendakuntzak askotan fakultatekoaren aurrean amor eman duela. Azti ez garenez gero ez da segurtasunik, galduko dela edota berrituko dela, geroak esango.

